

## **Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren trataera**

### **Inklusioa:**

Aniztasunari aurre egiteko duten moduetako baten berri ematen duen kontzeptua. Hau da, hezkuntza arloan konponbide pedagogikoak eskola arruntera eraman behar ditu.

### **Eskola inklusiboa:**

Haur eta gazte guztientzako eskola da. Hezkuntzara iritsiko dutela bermatzen duena haien garapen pertsonala lortzeko. Denontzako eskola.

### **Zer eskaintzen du:**

Aukera-berdintasuna, justizia eta ekitate baliabideak eskaintzen dituen kalitatezko hezkuntza-sistema da, denek elkarrekin bizi daitezen eta batez ere ikasle zaugarrienei zuzenduta. Bakoitza bere autonomia garatzeko gai izan dadin.

### **Zer egin behar du hezkuntza sistema:**

Testuinguru bat eraikitzea eta bizimodura egokitzea, horretarako, euskal hezkuntza-sistemako hamaika baliabide jarriko ditu abian, eta zenbait gune sortuko, eta hainbat neurri eta erabaki hartuz, kalitatez eta ekitatez erantzuteko ikasle guzti-guztien hezkuntza premiei.

### **Zer aukera ematen digu aniztasunak?**

Erantzun positiboa, gizaki guztiok garen bezalakoak izateko dugun eskubidearekin lotua ; eta negatiboa, bestetik, bazterketa- eta desberdintasun-egoera ugariaren kausa dena.

### **Zeintzuk dira gizarte eskoletako aniztasuna?**

- Kultura-aniztasuna. Kultura ezberdinetako pertsonak eremu berdinetan bizi gara gaur egun, jatorri edo leku ezberdinetakoak baikara. Oraindik mespretxuz begiratzen diegu geureaz bestelako kulturei, eta hori, jakina, guztiz baztertu beharrekoa da.
- Gaitasun-aniztasuna. Edozein pertsonak izan dezake testuinguru jakin batean zer edo zer egiteko gaitasuna; beste testuinguru batean, ordea, baliteke halako gaitasunik ez izatea. Eskola inklusiboak aberastu egin behar ditu bere gaitasunak, edozein motatako neska-mutilak, gaitasun handienekoetatik hasi eta zailtasunak izan ohi dituztenetaraino, gai izan daitezen beren burua ahalik

gehien garatzeko, eta ikasle guztiak irits daitezzen beren gaitasunak maila gorenean garatzera.

- Sexu-joeren aniztasuna. Nork bere sexualitatea sentitzeari dagokionez, norberak nahi bezalako sexu-harremanak izateari dagokionez, pertsonok orientabide desberdinak ditugu, jakina.
- Genero-aniztasuna. Gizarte-konstruktibo bat da generoa, ikasle guztien oraina eta geroa baldintzatzen dituzten desberdintasun bidegabe askoren berri ematen diguna.
- Baliabide sozio-ekonomikoen aniztasuna. Hezkuntza-sistemara iristeko desabantaila handiak izaten dituzte, eta desabantailok, gainera, dela eskolako bizimoduan parte hartzeko, dela lorpen akademikoak erdiesteko ahaleginean ikasle horiek porrot egin ez dezaten. Egoera hori guztiz bidegabea denez, beharrezkoa da eskolan behintzat konponbideren bat aurkitzea.

### **Hezkuntza komunitateak zer baldintza bete behar du?**

- Beharrezkoa da ikastetxeetan irakasle-talde egonkor eta malgu bat izatea, elkarrekin batera modu estrategikoan zenbait proiektu egin eta hezkuntza-komunitatea eratzeko.
- Eskola-komunitate abegikor, kolaboratzaile eta gogo-pizgarri bat eraikitzea, pertsona orori bere gaitasun eta potentzialtasunak aitortzeko.

### **Ados al zaude ikaskuntzaren prozesuan aipatzen den irakaslearen rolaekin?**

Bai, ados gaude. Irakasleak bidelagunak izan behar dira eta ikasleak kontuan izan behar dituzte. Hau da, ikasleak protagonistak izan behar dira eta irakasleak gidariak, bidea sortzen lagunduko dienak.

### **Aipatu zein metodologia proposatzen den.**

Metodologia inklusiboa. Pertsona bakoitzaren ahalmenak eta erritmoak errespetatzen dituen metodologia da. Maila bereko baina ahalmen desberdinetako pertsonekin ikasten dute. Elkarlana eta lankidetzak, solasaldi dialogikoak, tutoretza pertsonalizatuak eta irakaskuntza dibertsifikatua eskaintzen dituen metodologia.

### **Ikasgela al da lekurik onena inklusioa egiteko? Aipatu.**

Bai. Eguneroko ikasgela bat delako, ikasleak elkarrekin daudelako eta elkarlana sustatzen duelako.

### **Zeintzuk dira ikastetxe inklusiboaren ezaugarriak?**

- Ikasteko aukera izan dezatela bermatzeko elkarrekin lanean jartzea, elkar zaintzen eta errespetatzen harreman positiboak egin ditzaten.
- Sinergia aprobetxatu.
- Hezkuntza proiektu bat sortu.
- Ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea sustatu.
- Ibilbide eta "curriculum" pertsonalak malgutu.
- Aniztasunari aurre egiteko izan litzakeen mugak gainditu.
- Ikasgelarako proposamenak eraiki.
- Ikasgela gunek babestua dela bermatzea.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua malgutu eta bizitzarako ikaskuntza funtzionalagoa bihurtu.
- Proposamen zabal eta malguak landu.
- Ikasleen arteko elkarlana eta ikasle bakoitzaren autonomia errazteko moduan antolatu behar da ikasgela.
- Eskolaz kanpoko jarduera osagarri inklusiboak proposatu.
- Teknologia-baliabideak eraginkortasunez erabili.